

Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA

Ahotsenea

Xabier Gantzarainek zuzen zioen agerkari honetan egindako oraintsuko elkarrizketan. Durangoko Azoka helduko denean liburu zein diskoen edukiez baino Azokaren izaeraz, eraginaz, merkantilizazioaz egingo dugu berba.

Gogoeta horrek dindilizka utzitako hariari tiraka gabiltza aspaldiko urteotan Azokara hurreratzen garen hamaika lagun. Durangoko Azoka salerosketarako gune izatera elbarritu dela, merkantilismo hutsera lerratu delako ez direla sortzaile andana Azokara egun bakarrerako baino ez bada hurreratu ere egiten, espainolezko eskaintza euskarazkoa baino zabalagoa dela, liburu zein diskoen aldean beste edozer salgai dela nagusi, saldu beharraren uztarripean lagun, bestsellerismoaren sindromeak erasanda dagoela gure nobelagintza eta beste hamaika baieztapen irakurri ditugu urteotan eztabaidarako foroetan, paper gainekoetan legez barra ondokoetan.

Negarrak ito orduko begiak xukatzeagaz batera, egitasmoa burutzea otu zaigu zoro batzuei: Ahotsenea. Sortzaileen gunea. Lantu, auhen, aieneetarako indarrak berbideraturik, euskaraz idazten eta musika egiten dugunok, liburu eta diskoen



INIGO AZKONA

industriari bere bidea egitea galarazi barik, Azoka liburu zein diskoen edukiez berba-trukerako gune ere izatea lortu behar dugula iruditzen zaigu. Euskaraz sortzen dugunok zer, zelan, zeri buruz, zertarako, noiz, norentzat proposatzen dugun konpartitzeko gune baten beharra dugula iruditzen zaigu, stand edo saltokien atzea baino zabalagoa, erosoagoa, erakargarriagoa izango dena.

Ostera, berbatrukea ez dugu sortzaileen artera mugatu gura ez bada entzule-irakurleen esan beharrekora. Azokara doanak, liburuak eta diskoak erosteaz gain, liburu eta disko horiek egin dituztenekin harremanetan egoteko abagunea izan beharko luketela uste dugu, sinadura eskatzea baino haragokoa bezain hurbilekoa.

Abagunea gaur egun Azoka aterpetzen duen eraikinetik lekora eraiki beharko dugulakotan gaude, salerosketarako darabilgun Landakori belarra hondar bihurtu baitzaio zapaltzearen poderioz.

Gure aburuz, euskarazko sortzaileoi dagokigu Azokan gure arranak entzunaraztea, afixatarako ere ikusezin bihurtu gura ez badugu, bederen. www.ahotsenea.net. ■

« Azokara doanak, liburuak eta diskoak
erosteaz gain, liburu eta disko horiek
egin dituztenekin harremanetan egoteko
abagunea izan beharko luketela uste
dugu, sinadura eskatzea baino
haragokoa bezain hurbilekoa



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Da Iparraldeko hiru probintzietako lehen Bertsulari Xapelketa. Orain azterketa ez dagokie bertsolariei soilik, hauek nahita ere ezingo dute burutik erraz kendu. Baina azterketa zorrotzena, antolatzaile izan den elkarteari tokatzen zaio, bi urte barne egin beharrekoak eskatzen baitu. Euskal Herrikoan parte hartzeko eskubidea irabazi dutenek –Ametz, Sustrai, Miren, Maialen eta Odei– badute besteengandik bereizten dituen balio erantsi bat: Garazin eta Iruñean, Donostian eta Baionan, Gasteizen, Bilbon eta Maulen etxekoa direla. Euskal Herrian, edonon, inork ez ditu ezber-

Bukatu

dintzat hartuko, euskaraz daramaten munduaz gain, bi erdarena ere bereak baitituzte, inon ere arrotz ez sentitzeko aukera ematen diena. Txikien abantailak, berenaz harago handienena ere beharrezkoa dutenena. Hegoaldean nekez aurkitu daiteke Iparraldekoen erdara bere duen jende multzorik. Dagoeneko, Hegoaldeko euskaldun gazteak erosoago mugituko dira Londresen eta gaelikorik gabeko Belfasten Parisen baino, Euskadi eta Nafarroako Ikastolen estrategiari zor. Madrilen bikain. Eta Euskal Herriko Bertsulari Txapelketan eremu nazionalari legokiokeen gairik balego, gorago aipatu bertsolariak nabarmenduko lirateke. ■